

# 4 Euskaldun hazi Iruñean. Inguru erdaldun(du)etako familien hizkuntza elkarrekintzak eta komunitate aukerak

**Paula Kasares**

*Nafarroako Unibertsitate Publikoa*

paula.kasares@unavarra.es

Sarrera-data: 2012-11-15 / Onartze-data: 2012-12-17

**Laburpena.** Ikerlan honek kualitatiboki aztertu gabe zegoen gertakari bat arakatu du: Nafarroako hirigune erdaldundu batean —Iruñean— haur euskaldunak dituzten familietan nolako hizkuntza elkarrekintzak gertatzen diren. Horretarako hamar sendiko lagina osatu da, euskara gaitasun maila hagitz desberdineko gurasoak hartuta. Azterketak familien barneko hizkuntza portaerei eta ahaideen arteko elkarrekintzei erreparatu die. Ikerketak erakutsi duenez gurasoek euskararekin duten harremana —gaitasuna bera barne— prozesua da, ez alde aurreko baldintza, eta seme-alaben hizkuntza sozializazioan jokatzeko duen aldagai dinamikotzat hartu beharrekoa. Haurren hizkuntza sozializazioari eragiten dioten berte eragingarri batzuk nabarmendu dira: aita eta amen hautu-erabakiak, hizkuntza portaerak eta komunitate aukerak, berteak berte. • **Hitz-gakoak:** *hizkuntza sozializazioa, euskara Iruñean, euskararen berreskurapena.*

**Abstract.** This study examines an aspect that has not hitherto been analysed from a qualitative perspective, namely the kinds of language interactions that take place in families with Basque-speaking children living in a mainly Spanish-speaking city in Navarra: Pamplona. To this end, a sample of ten families was established, with parents having very different levels of Basque language skills. The study focused on the language behaviour and interactions of the various family members within the home environment. The results revealed that the relationship parents have with the Basque language (language skills included) is a process rather than a precondition, and that children's language socialisation is a dynamic variable. A number of other factors were identified which influence children's language socialisation: parents' decisions and choices, language behaviour and communications possibilities, among others.. • **Key words:** *language socialisation, Basque language in Pamplona, Basque language recovery.*

Nafarroako Mendialde euskaldunetik at, eta bereziki Iruñerrian, euskararen jarraipenerako esanahi handiko gertakari baten aitzinean gaude soziolinguistok. Eskola bidez edo gaztetan euskaldundu diren hiztunetako batzuk euskarari atxiki zaizkio eta aita-amatu direlarik seme-alabei hizkuntza horretan egitea deliberatu dute. Horri esker, egun badira familian euskaldun hazi diren haur iruindarrak eta euskaraz eskolatuta, etxetik kanpo ere gutxi-asko mintzaira horretan sozializatzen direnak. Iruñeko historia soziolinguistikoan —salbuespen bakan batzuk gora-behera— denboran urrunsko jo beharko genuke Nafarroako hiriburuan horrelako familiak eta hiztunak kausitzeko.

Zentsu-erroldak, inkesta eta azterketa soziolinguistikoek Iruñeko euskararen familia bidezko transmisioaren dimentsio kuantitatiboa azaleratu dute. Halaz guztiz, egon badaude hizkuntza hegemonikoaren ikuspegitik etxean euskaldun hazi diren iruindarrak badirela ukatzen dutenak. Halako ikusmoldea ezarrita dago eta gainera, ez dira hutsalak, sozialki oihartzun eskasekoak edo politikoki eraginik gabekoak ideia horri eutsi eta haizutzen dutenak. Horren ikusbide, 1994an Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko epaile batek Euskalerria irratia lizentziaren auzian Iruñerrian jatorrizko euskaldunik ez dagoela idatzi eta horrela argudiatu zuen kontrako epaia (Torrealdai 1998: 211).

Izan ere, Mendialde euskaldunetik at euskara lehen hizkuntza duten nafarrak badirela bai baina errealitate horren taxu kuantitatiboaz gain deus gutxi dakigu egun eremu erdaldun(du)etan eta, bereziki Iruñerrian, familia euskaldunetan gurasoen eta seme-alaben hizkuntza elkarrekintzak nola gertatzen diren eta haurrak nola ari diren euskaldun bilakatzen.

Orain artio Nafarroako euskararen belaunez belauneko jarraipenean kualitatiboki barrendu diren ikerlanak Mendialdeko herrixka euskaldunetara mugatu dira. Iparraldeko eremu horretaz landa aldiz, gaurdaino ez da haurrak euskaldun hazteko prozesua kualitatiboki miatzeko saiakerarik egin eta EAEn inguru hiritartu eta erdaldunduetako ikerketak badira ere (Hernández 2007), Nafarroako hirigune nagusian planteatzea aztergai guztiz jorragabea da.

Hala bada, ikerlan honek galdekizun nagusi hauei erantzun nahi die: egun nolakoak dira haur euskaldunak dituzten Iruñeko familien barneko hizkuntza elkarrekintzak? Nola jokutzen dute gurasoek haurrak euskaldun hazte aldera?

---

***Ikerlan honek galdekizun nagusi hauei erantzun nahi die: egun nolakoak dira haur euskaldunak dituzten Iruñeko familien barneko hizkuntza elkarrekintzak? Nola jokutzen dute gurasoek haurrak euskaldun hazte aldera?***

**Ikerlan honetan iruindar euskaldun belaunaldi berriaren euskarazko gizarteratzearen inguruabarrak eta baldintzak aztertzeko gurasoen euskara gaitasunari baino gehiago, aita-ama horien hizkuntza portaerei eta seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean egindako hautu eta erabakiei erreparatuko diet bereziki.**

## INGURU ERDALDUN(DU)ETAN EUSKALDUN HAZTEARI BEHATZEA

**I** Gurasoen hizkuntza gaitasuna haurrak hiztun bilakatzeko prozesuaren eragingarri nagusizat —eta maiz bakartzat— hartu ohi da: “Bikotekideen hizkuntza-gaitasunak erabat baldintzatzen du seme-alabei transmititzen zaien lehen hizkuntza” (Eusko Jaurlaritza 2008: 159). Ingurunearen eragina, gurasoek hizkuntzei esleitzen dizkieten balioak, bikotekideek familia barneko hizkuntza elkarbizitzaren gainean adosten edota isilean erabakitzen dituztenak eta umeei mintzaira ikasi, erabili eta lantzea ahalbidetzeko sortzen dituzten aukerak ez ohi dira behar bezala balioetsi.

Eragingarri horiek aintzat hartu dituzten ikerketek (oro har, hizkuntza sozializazioaren paradigmatic egindakoeak eta ikermolde kualitatiboko zenbait azterlan soziolinguistikok) alderdi horietan sakonago arakatzeko garrantzia iradoki dute.

Halaz, ikerlan honetan haur iruindarren euskarazko gizarteratzearen inguruabarrak eta baldintzak aztertzeko gurasoen euskara gaitasunari baino gehiago, aita-ama horien hizkuntza portaerei eta seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean egindako hautu eta erabakiei erreparatuko diet bereziki.

Hizkuntza sozializazioa teorikoki itxuratzen saiatu direnek prozesu horren izaera elkarrengile nabarmendu dute. Hau da, haurra edo heldu hasiberria ezagutza sozialaren jasotzaile pasiboa baino gehiago hiztun bilakatzeko prozesuan parte hartzaile aktiboa da giza taldeko bertze kideekin batera (Schieffelin & Ochs 1986).

Komunitate batean mintzaira bat baino gehiago izatea oso bakanetan da gertaera neutrala eta auzitan jartzen ez den egoera. Alderantziz, hizkuntza ukipena kultura eratzearen eta gizarte gatatzaren funtsezko gune izaten da eta inguru eleanitz horietan dira bereizki ohargarriak hizkuntza ideologiak. Hiztunek hizkuntzei buruz dituzten ideiak —hau da, hizkuntza bera zer den eta kultura identitatearekin nahiz norbanakoaren identitatearekin zer harreman duen— komunitateen artean ez ezik komunitate bakar baten barnean ere alda daitezke. Jendeak hizkuntzaren gainean dituen ideiek haien hizkuntza jarrerari eta portaerari eragiten diete. Hala bada, hizkuntza sozializazioaren prozesuaren bidez gizarte erreprodukzioa gauza daiteke, baina gizarte eraldaketa ere bai (Garrett 2012). Hortaz, mintzairaren transmisioa ikuspegi soziokulturaletik aztertzeak hizkuntza sozializazio prozesuaren dinamikotasuna darakutsa: “... how over time the lived experiences of parents and children become resources for chance” (Paese-Álvarez 2003: 23).

Schieffelinek eta Ochsek (1986) haurrak hizkuntzaren bidez ez ezik hizkuntzak erabiltzeko ere sozializatuak direla eta bi dimentsio horiek elkarri estuki loturik daudela iradoki zuten. Alde horretatik, sozializazio elebiduna izan duten haurrek bi hizkuntzak ikastearekin batera bi kodeak nola erabili, non, norekin eta zertarako, bi kodeak noiz bereizi, noiz nahasi ere ikasten dute. Hau da, gurasoek (eta haurraren inguruko helduek) beren jardueretan hizkuntza portaeren irakaspen berariazkoa egiten dute, hizkuntza erabiltzeko sozializazioa.

Aipatu alderdiak bereziki interesgarriak zaizkit eremu erdaldun(du)-etan gurasoek haurren hizkuntza sozializazioaren aitzinean dituzten jarrera eta portaerei antzemateko.

## EUSKAL HIZKUNTZA KOMUNITATEA ETA FAMILIA EUSKALDUNAK

### I

Inguru erdaldun(du)etako haur euskaldunen sozializazio inguruabarrei erreparatzeko zer familia hartu aztergai? Galdera hori, funtsean, *euskaldun eta euskal komunitate* kontzeptuei zer diren dugun ideiari dago lotua.

Hizkuntza sozializazioaren paradigma komunikazio gaitasunaren mikrogenesiaz arduratzen da eta ikertzaileek lan kontzeptu eta premisa teoriko aski hedatuak berrikusi behar izan dituzte. Adibidez, komunikazio jarduera modu hibrido, sinkretiko eta heteroglosikoak azaldu beharrik hizkuntzen arteko bereiztasunari eta mugatasunari buruzko onarpen inplizituak birpentsatzera eraman zituen aztertzaileak (Garrett 2012). Hizkuntza ukipen egoerak —iraunkorrak diruditenetatik mintzaira ordezkapeneraino doan maila desberdinetan— bilakabide dinamikoak dira berez eta izaera horri erantzuteko moduko hurbilpen teoriko eta metodologiko malguak behar ditugu. Hori horrela, bai norbanako mailan bai taldekoan, hiztun elebidunek hizkuntza bakoitzean duten gaitasuna prozesua da gehiago egoera estatikoa baino eta etengabe ari da indartzen edo ahultzen hiztunen elkarrekintzen arabera.

Hiztunen hizkuntza gaitasunaren izaera dinamiko eta heterogeneoa onartzeak hizkuntza komunitate ideia bera auzitan jartzea ekarri du. *Komunitate* kontzeptuak historia luze eta arantzatsua du soziologian eta antropologian, *hizkuntza komunitateak* soziolinguistikan bezala. Prattek (1989: 59) egungo Hizkuntzalaritzari *komunitatearen Linguistika* deitu dio eta haren dimentsio utopikoa kritikatu du gizarte errealitate askotarikoen irudi bateratua idealizatzeagatik.

Hizkuntza-komunitate ideiarekin behaztopak saihestearren, duela urte batzuetatik hona hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloan *jarduera*

**Sozializazio elebiduna izan duten haurrek bi hizkuntzak ikastearekin batera bi kodeak nola erabili, non, norekin eta zertarako, bi kodeak noiz bereizi, noiz nahasi ere ikasten dute. Hau da, gurasoek (eta haurraren inguruko helduek) beren jardueretan hizkuntza portaeren irakaspen berariazkoa egiten dute, hizkuntza erabiltzeko sozializazioa.**

**Ikerlan honen oinarrian dagoen euskal komunitate kontzeptuak bide eman behar digu hiztunen heterogeneotasunari behar bezala antzeman eta horretan arakatzeko, a prioriko planteamendu esentzialista eta naturalizatuetatik aldentuta.**

komunitate kontzeptua erabiltzen hasi da. Jarduera komunitatea ez dute kideek soilik definitzen ez eta jarduerak bakarrik ere, biak lotzen dituzten harreman kontzeptuek baizik. Horrek dakarren ondorioetako bat komunitatearen ertzak lauso eta nahiko irekiztat ikustea da. Jarduera komunitateak edozein talde anitza izan daitekeela aintzat hartu eta hiztunek komunitate batean baino gehiagotan parte hartzeko eredu dinamiko eta aldakorrek onartzen ditu.

Ikerlan honen oinarrian dagoen *euskal komunitate* kontzeptuak bide eman behar digu hiztunen heterogeneotasunari behar bezala antzeman eta horretan arakatzeko, *a prioriko* planteamendu esentzialista eta naturalizatuetatik aldentuta. Izan ere, Iruñeko familia euskaldunetako hizkuntza sozializazioaren gaineko ikerketa honetan hizkuntza gaitasun hagitz desberdina duten hiztunen arteko elkarrengaitan barrendu behar dugu eta miaketa ezin dugu hiztun euskaldunetara, *stricto sensu*, mugatu. Hizkuntza aldetik familia ez da talde homogeneoa eta ikerketarako lagina gurasoen euskara gaitasunari josirik zedarrituko banu egun haur iruindar euskaldun gehienak hazten diren familiak bazter uztera behartuta nengoke.

## METODOLOGIA

2000 eta 2010 bitarte sortutako haur euskaldunak dituzten Iruñeko familien barneko hizkuntza elkarrekintzak arakatzeko Iturrama auzoko Amaiur Udal Ikastola aukeratu nuen. Familia lagina osatzeko azken lau ikasturteotan (2008tik 2012ra, alegia) ikastolan eskolatutako hiru urteko ikasleen gurasoek betetako fitxak aztertu eta familien hizkuntza tipologiak ehunekotara ekarri nituen:

- Bi gurasoak euskaldunak dituzten haurrak %11-14 izan dira azken lau urteotan. Familia horietan ia guztietan haurrek euskara izan dute lehen hizkuntza.
- Guraso bat euskaraz ongi dakiena duten haurrak %28-57 bitartean ibili dira azken lau ikasturteotan. Kasu horietan aitak eta amak bereizi behar dira: euskara dakiena ama bada, gehienetan euskara eta gaztelania, biak ikasi ditu haurrak etxean. Aita delarik euskalduna aldiz, gehienetan gaztelania hutsa izan da haurraren lehen hizkuntza.
- Guraso biak euskaraz ongi edo batere ez dakitenak dituzten haurrak %30-58 izan dira.

Aita-amek aitortutakoaren arabera, gero eta ohikoagoak dira guraso bat bederen euskaraz dakiena izan arren etxean erdara hutsean aritzen

diren familiak. Hori horrela, bereziki interesgarria izan zait kasu horiek ikertzea.

Ikastolako fitxetatik ateratako ehunekoak aintzat hartuta, hamar familiako honako lagina hau osatu nuen: hiru familian bi gurasoek euskaraz egiten ohi dute, bertze hirutan guraso bakarrak jardukitzen du beti edo batzuetan, eta bertze lauretan gurasoak behin ere ez edo inoiz edo behin baizik ez zaizkie umeei euskaraz mintzatzen.

Lehen mailako datuak teknika etnografikoen bidez eskuratu nituen, batik bat gurasoen *glotobiografien* eta horietan oinarriturik osatutako *familien glotohistorioen* (FGen) bidez (teknika horien gaineko xehetasunetarako: Kasares 2012).

Halaz, hurrengo atalotan Iruñeko hamar familiatako gurasoek seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean dituzten portaerak eta etxe-koen arteko elkarrekintzak aztertuko ditut.

## **EUSKARAZ BIZI DIREN FAMILIAK: EUSKARA ERABILTZEKO SOZIALIZAZIOA**

Iruñeko hiru bikotek (11., 12. eta 13. FGetakoek) euskaraz beti edo gehienbat aritzen diren familiak osatu dituzte. Gurasoak euskaldunak dira baina ez dirudi hizkuntza gaitasuna —gutxienezko maila batean beharrezkoa bada ere— guztiz erabakigarria izan denik: hizkuntzan ongi moldatzea euskaraz bizi izateko alde zureko baldintzat baino gehiago euskaraz bizi izatearen ondorioetako agertzen da.

Izan ere, gurasoak euskararekin motibazio handiko hiztunak dira, mintzairari atxikimendu sendoa diotenak (guztiak ez badira ere, bikote bakoitzean bat bederen halakoa da). Familian euskaraz egitea deliberatu dute kasu gehienetan euskara hobekien eta erosoan mintzatzen diren hizkuntza ez bada ere. Batzuei bikotearen harreman hizkuntza aldatzea prozesu gaitz eta nekoso gertatu zaie. Familia euskalduna osatzea erabaki jakinaren gainekoa izan da, gibelean motibazio azkarra izan duena ahalegin larria eskatzen baitu, arrazoi subjektiboek ekarria, guztiz ideologikoa eta finean, hiztunen gogo-nahi edo “kontzientzia” kontua.

11. FGko bikoteak familiaren hizkuntza euskara izatea eztabaidatu beharrik gabeko kontu jakintzat eman zuen eta bertzeek (12. eta 13 FGetakoek) familian, eta bereziki haurrekin, nola mintzatuko ziren hizpide izan eta adostu zuten. Oro har, guraso horiek familiaren barneko hizkuntza elkarbizitza planifikatu dute. Batzuetan, bikoteek aita-amatu baino lehenago ere seme-alabak izateko aukera eta osatuko zuten familiaren hizkuntza solasgai izan zuten. Bertze batzuetan, lehen umea

---

**Gurasoak euskararekin motibazio handiko hiztunak dira, mintzairari atxikimendu sendoa diotenak (guztiak ez badira ere, bikote bakoitzean bat bederen halakoa da). Familian euskaraz egitea deliberatu dute kasu gehienetan euskara hobekien eta erosoan mintzatzen diren hizkuntza ez bada ere.**

**Haurrek  
hizkuntza ez ezik  
mintzaira  
erabiltzeko arau  
sozialak,  
hizkuntzen  
arteko hierarkia,  
kode baten eta  
bertzearen  
gizarte  
baliagarritasuna  
eta halakoak ere  
barneratzen  
dituzte. Alderdi  
hori da euskaraz  
bizi diren  
familietako  
gurasoei bereziki  
ardura diena:  
haurrengan  
euskararen  
erabilera  
portaera egokiak  
ezartzea.**

izatea erabakigarria izan da aita-amendako familia osatzeak gurasoak seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean paratu baititu eta etxeko hizkuntza portaera ezartzeko unea izan baita. Hala bada, umeak izateak edo izateko aukerak bikotekideen arteko hizkuntza ohituretan duen eragina agerikoa da.

Lekukotasun horiek harreman hizkuntza erdaratik euskarara aldatu duten bikoteen gaineko ikerketa batek (Soziolinguistika Klusterra 2009: 17) ondorioztatu duena sendetsi dute: seme-alabek gurasoen arteko euskarazko ohitura finkatzen laguntzen dute. Halaz, umeak izateak hizkuntza sozializazioa ahalbidetzen duten baldintza soziohistorikoen eta norbanakoaren hizkuntza nahikari eta atxikimenduen nolabaiteko katalizatzailetako jokatzen du. Behin lehen aldiz aitatu edo amatuz gero, subjektuak bertze edozein erlaziotan baino aukera handiagoa du sortu den umearekin harremana euskaraz bideratzeko.

Guraso horiek familia euskalduna osatu nahi izan dute eta etxean nola egingen zuten solasgai izanda eta adostuta edo berez hala eginda, hizkuntza portaera finkoak ezarri dituzte. Familia guztietan guraso batek bederen euskarari tinko eusten dio etxean, seme-alabekin aritzean batik bat. Bertzalde, euskararekin kontzientziatuen edo motibatuen dagoen gurasoak haurren hizkuntza sozializazioaren gainekoak deliberatu eta hautatzeko erabakimen edo eragin handia izan du.

Familia hauetako gurasoek seme-alabak euskaraz haztea dute helburu eta haurren hizkuntza sozializazioari dagozkionak zaintzen ohi dituzte. Hizkuntza erabiltzeko sozializazioan haurrak erabilerarako arau ez jabetzen dira mintzaira gizarte jardueretan nola erabiltzen den ikusita eta egoera horietan parte hartuta (Schieffelin & Ochs 1986: 171). Hala bada, haurrek hizkuntza ez ezik mintzaira erabiltzeko arau sozialak, hizkuntzen arteko hierarkia, kode baten eta bertzearen gizarte baliagarritasuna eta halakoak ere barneratzen dituzte. Alderdi hori da euskaraz bizi diren familietako gurasoei bereziki ardura diena: haurrengan euskararen erabilera portaera egokiak ezartzea.

Aita-ama horiek umeak sortzetik beretik etxean euskarara jarrarazi nahi izan dituzte eta euskaraz egin dezaten hazten dituzte haurrak. Euskararen erabilerarako gurasoen jarduera sozializatzaileak honako eraginbide hauek ditu:

- Gurasoek seme-alaben *hizkuntza portaeren eredu*a izan nahi dute. Horrek honakoak dakartza: bikotekideek euskara beren arteko mintzaira ohikoa bihurtzea, edo haurren aitzinean bederen zaintzea, eta haurrekin beti euskaraz aritzea. Batzuetan gurasoek hizkuntza

moldean ere seme-alabendako eredugarri izan nahi dute eta euskara gaztetan ikasi bazuten ere haurrei mintzaira jatorra (adibidez, herriko hizkera edo hitanoa) irakasten saiatzen dira.

- Haurrak euskaraz hazteko gurasoek *umeen zaintzari dagozkion hautuak* egiten dituzte: haurtzain euskalduna kontratatu, euskarazko haur eskola bilatu, ikastolako bi urteko gelara jo... Aita-amen hautu-erabaki horiek, zuzenean edo zeharka, haurren hizkuntza sozializazioari eragiten diote. Zenbait egilek (erraterako, Fishmanek 1997) gurasoek horretan duten egitekoa funtsezkotzat jo dute. Chrispek (2005) hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioari eragiten dioten faktoreen artean aita-amen *critical awareness* aipatu du, hots: gurasoak beren hizkuntza jokaerek mintzairaren ondorengoengana-tzean dituzten ondorioen jakitun izatea.

- Gurasoei seme-alaben hizkuntza portaerak axola die eta umeen euskararekiko atxikimendua lantzen dute. Eredua emateaz gain, zenbait kasutan (11. eta 13. FGetan) maila diskurtsiboan *euskara erabiltzeko heziketa* egiten dute etxean nahiz etxetik kanpo: seme-alaben euskararen erabilera sustatzen dute (bertze haurrekiko harremanetan, kultura kontsumoan eta jardueretan...), erdarazkoa gaitzesten dute eta haurrei ohartarazten diete... Indartze ideologiko hori, haurrei hizkuntza jarrera eta portaera egokiak espresuki irakastea, oinarritzotzat jo dute adibidez, hebreeraren indarberritzea aztertu duten egileek (Nahir 1988).

Etxeko hizkuntza giroak eragiten die haurren portaerei. Euskaraz bizitzea erabaki duten familietan hazi diren haurrideek beren artean euskaraz egiten dute. Kasu batean (12. FGan) ezin dut hori zuzenean frogatu seme bakarra baita, baina horretan mutikoak bere belaunaldi bereko ahaideekin, hau da, lehengusuekin euskaraz egiten du beti. Dirudenez, haurrek guraso euskaldunei euskaraz egitea aita edota ama horien hizkuntza erabilera irmoak eraginda da.

Aztertutako familietan aitona-amonek, antza, ez diote haurren euskarazko sozializazioari bereziki eragin. 11. FGko aitaxi bat eta 12. FGko amatxi bat ez bertzeak erdaldunak dira.

Iruñea bezalako ingurune erdaldunduan euskaraz bizi eta umeak euskaldun hazi nahi dituzten familia horiek jakinaren gaineko hautu-erabaki anitz hartu behar izaten dituzte haurrek etxean, eskolatu baino lehen, eskolan eta eskolaz kanpo izanen duten hizkuntza sozializazioari loturik. Guraso horiek euskaraz bizitzea ahalbidetzen duten gizarte aukerak baliatzen dituzte (haurtzain euskaldunak, haur eskolak, kultura eskaintza...) baina ikastetxeaz gain Iruñean euskarazko eskaintza urri-

---

**Haurrak euskaraz hazteko gurasoek umeen zaintzari dagozkion hautuak egiten dituzte: haurtzain euskalduna kontratatu, euskarazko haur eskola bilatu, ikastolako bi urteko gelara jo... Aita-amen hautu-erabaki horiek, zuzenean edo zeharka, haurren hizkuntza sozializazioari eragiten diote.**



**Aztertutako  
kasuek  
bikotekideen  
artean familiaren  
hizkuntza  
elkarbizitza  
adostu eta  
erabilerari tinko  
eustearen  
garrantzia  
darakutsate. Hori  
gabe nekez izan  
dezake euskarak  
etxean tokirik.**

urria dela eta aukerak bakanak direla erratean agertzen dira guztiak irizkide.

## **GURASO BAKARRAK EUSKARAZ EGITEN DUELARIK: ETXEAN EUSKARARI TOKIA EGINEZ**

Aztergai izan dudan laginaren arabera, guraso bat euskalduna duten (hiru kasuetan aita: 14., 15. eta 16. FGetan) Iruñeko familietan euskarak ez ohi du toki handirik izaten etxeko bizitzan. Dena dela, aldea badago guraso euskaldunak seme-alabekiko harremanetan euskarari tinko eusten dion kasuaren (14. FGren) eta erdaraz ere aritzen diren kasuen (15. eta 16. FGen) artean.

Guraso euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboari faktore aipagarri deritzot baina, aurreko ataltxoan iradoki dudan bezala, euskaraz eroso aritzeak alde aurreko baldintza baino gehiago egunerokoan erabiltzearen ondorioa dirudi. Guraso euskaldunaren hizkuntza atxikimendua eta umeen hizkuntza sozializazioaren gainean duen erabakimena eta inplikazioa eragingarri garrantzitsuagoak direlakoan nago.

Bikote bakarrak (14. FGk) aitortu du espreski adostu zuela etxean haurrari nola egin eta guraso bakoitza berean mintzatzen zaio haurrari, bikotekidearen aitzinean ere. Bertzeetan (15. eta 16. FGetan), antza, bizikideek ez dute familiaren barneko hizkuntza elkarbizitza aurreikusi, ez dute guraso euskaldunak haurrei nola eginen zien garbi adostu eta, ondorioz, euskarak ez du toki garbirik guraso euskaldunaren eta seme-alaben arteko elkarrekintzetan. Horrek familiaren harremanetan hizkuntza portaera finkorik ez egotea dakar. 15. eta 16. FGetan aita-amek ez zuten garbi ezarri seme-alabei batak euskaraz eta bertzeak erdaraz eginen lieketela. Ondorioz, aita euskaldunak ez die beti umeei euskaraz egiten eta haurrek aitarekiko harremana ez dute mintzaira horretan finkatuta. Guraso horiei zailsko egiten zaie familiaren elkarbizitzan euskarari tokia ematea, batik bat familiakide erdaldunen (bertze gurasoaren, aitatxi-amatxiren...) aitzinean. Halaz guztiz, zenbait une eta gune euskararako gordetzen dituzte.

Aztertutako kasuek bikotekideen artean familiaren hizkuntza elkarbizitza adostu eta erabilerari tinko eustearen garrantzia darakutsate. Hori gabe nekez izan dezake euskarak etxean tokirik.

Orobat, seme-alabei euskara umezarotik ziurtatzearen gurasoek eskura zeukaten bertze biderik (haurtzain euskalduna kontratatzea, guraso euskaldunaren inplikazioa haurren zaintzan eszedentziak berak hartuta edo euskarazko haur eskola hautatzea, adibidez) ez da garbi agertzen. Izan ere, Iruñean euskarazko gizarte aukera urritasun-

nak —euskarazko haur eskolak oso gutxi izateak, kasu— umeen euskarazko sozializazio goiztiarraren aldeko hautuak beti zailagoak izatea dakar.

Hala bada, dirudienez, guraso bat euskalduna duten Iruñeko familia gehienek etxeetan erdara da nagusi edo egiten den hizkuntza bakarra, areago guraso euskalduna umeen zaintzan gutxiago inplikatzeko bada, aiten kasuan gertatzen ohi dena. Aztertutako familietan aita euskaldunek amek baino gutxiago hartu dute parte seme-alaben haztean eta horrek, noski, haurren hizkuntza sozializazioan ondorioak izan ditu aita baldin bada etxeko euskaldun bakarra.

Guraso euskaldunak seme-alabekin euskaraz tinko ez jarduteak gurasoaren eta umeen arteko harremana mintzaira horretan ezarrita ez egotea dakar, hau da, seme-alabek guraso euskaldunarekiko harremana ez diote euskarari esleitua. Halaz, batzuetan euskaraz eta bertze batzuetan erdaraz egiten duen gurasoari seme-alabek ez diote beti euskaraz egiten.

Bertzalde, behin gurasoaren eta umearen arteko harremana hizkuntza batean ezartzen denez gero, harremanak haurrendako hizkuntza horretan du benetakotasuna eta mintzairaz aldatzeko erresistentziak ager daitezke.

Aztertutako familietako batean, 14. FGan, aitatxi euskalduna haurraren hizkuntza sozializaziorako eragingarri garrantzitsua izan dela agertzen da. Familia horren umea seme bakarra da baina bere belaunaldi bereko ahaideekin (lehengusinekin) euskaraz aritzen da. 15. eta 16. FGan aldiz, haurrideek beren artean erdaraz egiten dute.

Ondorioz, guraso bakarra euskalduna duten Iruñeko familietako umeak etxean euskaraz jabetuko direla aurreiritzeko oinarririk ez dago. Ikusi bezala, haur horiek etxean euskara ikas dezaten guraso euskaldunaren portaerak berebiziko garrantzia du.

Gure historia soziolinguistikoko hurbilean herri arras euskaldunetako landa, bitariko bikoteek euskararen ahultze demografikoa ekarri ohi dute umeak erdaldun elebark hazten baitzituzten. Azken hamarkadetan ordea, joera hori itzulikatu da eta azken inkesta soziolinguistikoa (Aizpurua & Ortiz de Landaluze 2012) arabera, Nafarroan egun seme-alaba txiki eta gaztetxo dituzten bikote mistoetako guraso euskaldun gehienek umei euskara transmititu diete.

Halaz guztik, inkestak dioenez, hondar hogeitun euskaldunak gero eta gehiago badira ere —eta batik bat gazteak— etxeko euskararen erabilerak igo beharrean beheiti egin du. Orobat, Iruñerriko azterketa batek (Euskarabidea & Nafarroako Gobernua 2006: 22) hiztunen ingu-

---

**Azken hamarkadetan ordea, joera hori itzulikatu da eta azken inkesta soziolinguistikoa ren (Eusko Jaurlaritzan 2012) arabera, Nafarroan egun seme-alaba txiki eta gaztetxo dituzten bikote mistoetako guraso euskaldun gehienek umei euskara transmititu diete.**

**Bitariko bikoteek  
guraso  
euskaldunak  
haurrekin  
harremana  
euskaraz izanen  
duela adosten ez  
badute, guraso  
horrek euskarari  
tinko eusten ez  
badio, haurrak  
guraso  
euskaldunarekin  
aski denbora —  
erdaldunarekin  
adina behintzat—  
ematen ez badu  
eta haur horrek  
etxetik at, haur  
eskolan eta gero  
ohiko  
eskolaldian,  
euskaraz egiten  
ez badu zaila da  
guraso bakarra  
euskalduna  
izanda umeek  
ttikitattik bi  
hizkuntzak  
egitea.**

rune hurbila eta familia bera hizkuntza aldetik ez homogeenok direla utzi du agerian. Gertakari hori ez daiteke uler Iruñerriko ingurune soziolinguistikoa eta horrek bertako euskal hiztunei eragiten dizkien inguruabarrak aintzat hartu gabe. Bitariko bikoteen hizkuntza-sozializazio portaera ere baldintza horietan aztertu beharra dago.

Hala bada, nire idurikotz, ikerlan kuantitatiboek adierazten dutenaren azpian oso egoera konplexuak daude eta bitariko bikoteek familiaren barneko hizkuntza erabilera ezin da haien ingurune soziolinguistikotik bereizirik aztertu.

Katalanaren eremu soziogeografikoan arreta berezia eman zaie bikote mistoei, heterogeneotasun eta mugikortasun handiko gizartea izanda bilakaera soziolinguistikoa gakoak direlakoan. Egindako ikerketek, batik bat ikermolde soziologiko-kuantitatibokoek, inguruaren eragina nabarmendu dute. Izan ere, katalanaren gizarte erabilera ahulxe dagoen eremuetan bikote mistoek portaera makrosozial hori islatzen ohi dute (Vila 1993).

Iruñeko gizartean euskarak duen ahuleziak bikote mistoetako guraso euskaldunei eragiten die haurrei zein hizkuntzatan egin hautatzean. Iruñeko egoerari —aski inguru erdaldunduari— antzeman diodanaren arabera guraso bat euskalduna izanda ere, familiarik gehienetan etxeko erabilerak ez die haurrei euskaraz jabetzea bermatu. Bitariko bikoteek guraso euskaldunak haurrekin harremana euskaraz izanen duela adosten ez badute, guraso horrek euskarari tinko eusten ez badio, haurrak guraso euskaldunarekin aski denbora —erdaldunarekin adina behintzat— ematen ez badu eta haur horrek etxetik at, haur eskolan eta gero ohiko eskolaldian, euskaraz egiten ez badu zaila da guraso bakarra euskalduna izanda umeek ttikitattik bi hizkuntzak egitea.

Aztertu ditudan bi familian, 15. eta 16. FGetan, etxeko hizkuntza sozializazioak ez die haurrei euskara ikastea bermatu. Halakotz, Mackeyk (1976: 378) iradoki bezala, hizkuntza gatazka egoeretan haurrek familiaren barnean txikitatik bi hizkuntzak aditzeak ez die ziurtatzen bi mintzairen jabetze orekatua, ikasteko bertzelako ahaleginik gabekoa. Haur eskola eta ikastola gabe, ziur aski haur horiek familian euskararekin izandako harremana ez zen euskara ikasiko zutela bermatzeko aski izanen. Eskolak hizkuntzaz jabetzea bermatu eta sendotu duelako —baina ez guraso euskaldunarekiko harremana aski delako— euskaldundu dira haur horiek. Dena dela, haurren hizkuntza sozializazio prozesuan familia eta eskola ez zein bere aldetik, batera eta elkarrengian baizik ari direla ulertu behar dugu.

## **EUSKARA HAUREN BIDEZ ETXEAN SARTZEN DIRELARIK: ETXEKOEN ARTEKO HIZKUNTZA ELKARRERAGINAK**

### **I**

Euskararen transmisioaren azterketarako ohiko ikuspegietan gurasoen gaitasuna batik bat eta gutxiagotan jarrerak eta portaerak izan dira aztergaiaren gunea. Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztertzean seme-alabak goitik heldu zaien eraginen jasotzaile pasibotako hartu dira, familietan hurrek har dezaketen jokaera aktibo eta berritzailea —soziologiak eta batik bat hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloak aitortua— bereziki aintzat hartu gabe.

Aztergai izan dudana familia laginari begiratuta, lau dira euskara ongi ez dakiten gurasoek osatuak 17., 18., 19. eta 20 FGak (17. eta 18.a guraso bakarrekoak). Aita eta ama horietatik batzuek seme-alabak izan baino lehenago euskararekin harremanen bat izan zuten eta bertze batzuek aldiz, haurrak eskolatu artio euskara ez dute inoiz hurbil izan.

Guraso horiek seme-alabak euskaraz eskolatzea erabaki dute. Familia horietan haurrak izan dira gurasoei euskararekiko motibazio berriak piztu dizkietenak: berriz mintzatzen hasteko (17. eta 18. FGak eta 19. FGko aita) edo ikasteari ekiteko (19. FGko ama). Erdaraz baizik egiten ez zen etxeetan haurrak izan dira euskara sartu dutenak eta, kasuren batean (20. FGan) gurasoen euskararekiko lehen harremana alaben bidez hasi da.

Euskara gaitasun urriko gurasoek hizkuntza portaera aktiboagoa dute haurrak direla eta Iruñeko egoera erdaldunduan euskara atzenduxe edo kamustua dutenek mintzaira “berreskuratzen” ari dira (18. FG eta 19. FGko aita). Helduekin euskaraz egiten ez duen gurasoa ere (17. FG) umekin aiseago animatzen da egitera, hurrekin euskaraz aritzea errazagoa baitzaie.

Guraso erdaldunen kasuan seme-alaben bidez sartu da euskara etxera. Hurrek hurbilarazi dituzte gurasoak hizkuntza berrira, hau da, haiek dira gurasoen hizkuntza sozializatzaileak edo behetik goitiko sozializazioa egin dutenak (20. FG).

Hala bada, euskararen gizarte berreskuratzeko prozesuan haurren eragingarritasuna aintzat hartzekoa da.

Soziolinguistikari ezagutzen dugun hizkuntza indarberritzeko kasurik arrakastatsuenak, hebreerarena, aztertu duten ikertzaileek ere haurren eta helduen arteko elkarreagin hori nabarmendu dute. Haurrak eskolan ikasitako hebreera eskolatik at hasi ziren erabiltzen, etxera eraman zuten eta gurasoei eragin zieten mintzaira ikasteko edo bigarren

---

**Guraso erdaldunen kasuan seme-alaben bidez sartu da euskara etxera. Hurrek hurbilarazi dituzte gurasoak hizkuntza berrira, hau da, haiek dira gurasoen hizkuntza sozializatzaileak edo behetik goitiko sozializazioa egin dutenak. Euskararen gizarte berreskuratzeko prozesuan haurren eragingarritasuna aintzat hartzekoa da.**

**Eskolatzeko  
hautuarekin  
bakarrik Iruñeko  
gurasoei  
euskararekiko  
motibazioen bat  
aitortu behar  
zaie.**

hizkuntzatako baldin bazekiten erabiltzeari ekiteko: “The acquisition of Hebrew was at times proceeding in what may be seen a reverse direction or order, that is, from children to adults” (Nahir 1988: 287).

Eskolatzeko hautuagatik bakarrik Iruñeko gurasoei euskararekiko motibazioen bat aitortu behar zaie. Erdaraz aritzen diren familietan gurasoak seme-alaben euskara ikasteko prozesuan gutxi-asko inplikatzeko dira, interesa dute eta haurrak motibatzen saiatzen dira. Erraterako, seme-alabak euskaraz eskolatzeko gain etxean ere hizkuntzari lekuren bat behinik behin egin nahi izan diote, txikisko bada ere (zenbait errutinataro edo jarduera nahiz eremu zehatzetara mugatua). Euskaraz deus ere ez dakiten gurasoen kasuan (20. FG) haurrak motibatzeke jarrerak agertzen dira. Halere, familiek ez dute umeak euskaldun hazteko berzelako biderik hartu, euskarazko haur eskolak hautatu, kasu.

Ezin ahaztu Iruñean euskarak duen egoera ahulak, erakunde publikoen babes eskasak eta gainera, gizarte eskaintza murrizak (erraterako, neska-mutikoez ez dute euskarazko telebista saiorik ikusterik) anitz aldiz etxe erdaldunetako haurrek euskararekin duten harremana eskolara mugatzen dutela. Familia horietako haurride guztiek erdaraz egiten dute beren artean.

## ONDORIOAK

Ikerlan honek kualitatiboki aztertu gabe zegoen gertakari bati behatu dio: Nafarroako hirigune erdaldunduan —Iruñean— nola ari diren haurrak euskaldun hazten.

Ikerketaren planteamendua hizkuntza sozializazioaren paradigma teorikotik egina da eta hizkuntza transmisioaren ikusmolde ohikoan orain artio egin diren azterlanetatik bi arlotan bereizten da: 1) Ez dio gurasoen euskara gaitasunari soilik begiratzen, hizkuntza portaerei eta familiakideen arteko elkarrekintzei ere erreparatzen die. 2) Ez da guraso euskaldun bat bederen duten familietara mugatzen, aita-amak erdaldunak dituzten sendiak ere hartzen ditu aztergai. Izan ere, hiztunek hizkuntzarekin duten harremana —gaitasuna bera barne— prozesua da, ez alde aurreko baldintza, eta seme-alaben hizkuntza sozializazioan jokatzeko duen aldagai dinamikotzat hartu behar dugu.

Iruñean euskaraz bizi diren familietan gurasoek mintzairari atxiki-mendu sendoa diote eta sendiaren barneko euskarazko elkarbizitza planifikatu dute hizkuntza portaera finkoak ezarri. Haurrek euskaraz egin dezaten ekintza sozializatzaile agerikoa egiten dute: hizkuntza portaera eredugarriak, haurren hizkuntza sozializazioaren aldeko hautuak eta

heziketa ideologikoa. Familia horietan seme-alabek euskaraz egiten diete gurasoei eta haurrideak beren artean ere euskaraz aritzen dira.

Euskaraz egiten duen guraso bakarra duten familiak inguruko baldintza soziolinguistikoekiko bereziki eraginberak dira eta horietan guraso euskaldunaren portaera erabakiorra da. Ikerlan kuantitatiboek adierazten dutenaren azpian oso egoera konplexuak daude eta Iruñeko bikote misto horien umeez ttikitatik bi hizkuntzetan egitea zailsko gertatzen da baldintza batzuk ezean. Eragingarri nagusiak hauek dira: bikoteak adostea guraso euskaldunak haurrekin harremana euskaraz izanen duela, guraso horrek umeez harremanetan euskarari tinko eustea, haurrak eta guraso euskaldunak elkarrekin bakarrik aski denbora ematea eta haurrak etxetik at ere, haur eskolan eta ohiko eskolaldian, euskaraz egin ahal izatea. Guraso euskaldunaren eta seme-alaben arteko harremana euskaraz ezarri ez delarik umeez erdaraz egiten ohi diote guraso euskaldunari eta haurrideak beren artean ere erdaraz aritzen dira.

Euskara gutxi edo batere ez dakiten gurasoek osatutako familia iruindarretan euskara seme-alaben bidez sartu da. Haurren eraginez euskara atzenduxea zuten gurasoak hizkuntza “berreskuratzen” hasi dira edo euskararekin inolako harremanik izan ez dutenak mintzaira berrira hurbildu dira. Kasu horietan haurrak ditugu gurasoen hizkuntza sozializatzaileak, behetik goitiko sozializazioa egin dutenak. Transmisioaren ikuspegi ohikoak euskaraz ez dakiten gurasoen familiak azterketatik baztertu ditu eta horrekin ikusezin bihurtu sendi horietan haurren euskarazko sozializazioaren inguruan gertatzen diren elkarreraginak. Beraz, euskararen gizarte berreskuratzekeo prozesuan haurren eragingarritasuna aintzat hartzekoa da.

Iruñean euskararen egoera ahulak eta gizarte bizitza (soziolinguistikoa ere) ezartzen duten faktore makrosoziopolitikoek haurrak euskaldun haztea guztiz familiaren baitan uzten dute. Euskararen eta euskarazko irakaskuntza hautazkoa baita eta mintzairaren gizarte eskaintza eta aukerak urri-urriak izanda, neska-mutiko iruindarren euskarazko sozializazioa haien gurasoen hizkuntza jarrera, portaera eta hautuei erabat loturik dago. ●

**Eragingarri nagusiak hauek dira: bikoteak adostea guraso euskaldunak haurrekin harremana euskaraz izanen duela, guraso horrek umeez harremanetan euskarari tinko eustea, haurrak eta guraso euskaldunak elkarrekin bakarrik aski denbora ematea eta haurrak etxetik at ere, haur eskolan eta ohiko eskolaldian, euskaraz egin ahal izatea. Guraso euskaldunaren eta seme-alaben arteko harremana euskaraz ezarri ez delarik umeez erdaraz egiten ohi diote guraso euskaldunari eta haurrideak beren artean ere erdaraz aritzen dira.**

## BIBLIOGRAFIA

- AIZPURUA, J. & ORTIZ DE LANDALUZE, A. (2012). V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011. BAT Soziolinguistika aldizkaria 84, 59-88.
- CHRISP, S. (2005). Māori intergenerational language transmission. *International Journal of Sociology of Language* 172, 149-181.
- EUSKARABIDEA & NAFARROAKO GOBERNUA (2006). Estudio sociolingüístico de Pamplona y su comarca. Sarean: <[http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/pamplona\\_y\\_su\\_comarca\\_2006.pdf](http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/pamplona_y_su_comarca_2006.pdf)>.
- EUSKO JAURLARITZA (2008). IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- FISHMAN, J. A. (1991/1997). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Philadelphia, Adelaide: Multilingual Matters.
- GARRETT, P. B (2012). Language Socialization and Language Shift. In Duranti, A.; Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (arg.), *The Handbook of Language Socialization* (515.-535. or.). Malden, Oxford, Chichester: Wiley-Blackwell.
- KASARES, P. (2012). Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 82, 15-52.
- HERNÁNDEZ, J. M. (2007). *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de Cultura.
- MACKEY, W. F. (1976). *Bilinguisme et contact des langues*. Paris: Klincksieck.
- NAHIR, M. (1988). Language planning and language acquisition: The “Great Leap” in the Hebrew revival. In Paulston, C. B. (arg.), *International Handbook of Bilingualism and Bilingual education* (275.-295. or.). Connecticut: Greenwood Press.
- PEASE-ALVAREZ, L. (2003). Transforming Perspectives on Bilingual Language Socialization. In Bayley, R. eta Schecter, S.R. (arg.), *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* (9.-24. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- PRATT, M.L (1987/1989). Utopías lingüísticas. In Fabb, N.; Attridge, D.; Durant, A. & MacCabe, C. (biltz.), *La lingüística de la escritura. Debates entre lengua y literatura* (57.-74. or.). Madrid: Visor.
- SCHIEFFELIN, B.B. & OCHS, E. (1986). Language Socialization. *Annual Review of Anthropology* 15, 163-191.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2009). Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketa-lana. Ikerketaren emaitza eta ondorioen laburpena.

Sarean:<<http://www.soziolinguistika.org/eu/fitxategiak/643>>

TORREALDAI, J.M. (1998). *El libro negro del euskera*. Donostia: Tarttalo.

VILA, F. X. (1993). *Transmissió dels idiomes en les parelles lingüísticament mixtes*. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura.